

III. ERANSKINA

2016ko OTSAILAREN 19ko ERABAKIA

"Mekanikako Teknikari Espezialista" Lan-Poltsa handitzeko deialdiaren oinarriak

Lehenengoa.- Xedea eta oinarrizko elementuak.-

1.1.- Xedea.- Honako deialdi honen xedea da "Mekanikako teknikari espezialista" lan-poltsa handitzea, UPV/EHUREN esparruan aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko.

1.2.- Oinarrizko elementuak.

1.2.1.- Aukeratutako langileek hutsuneek sortutako premiak estaliko dituzte - horiek arauz bete arte- edo aldi baterako premiak estaliko dituzte. Kasu guztietan, plazak edo premiak eskatutako baldintza zehatzak bete beharko dira.

1.2.2.- Kasu bakoitzean, premiei edo deialdia egin den lanpostu zehatzari dagozkion lanaldia eta ordainsaria izango dira.

1.2.3.- UPV/EHUK hiru lurralde historikoetan dituen bulegoetako edozeinetan egon daitezke lanpostuak.

1.2.4.- Aukeratutako langileak "Mekanikako teknikari espezialista" lan-poltsan txertatuko dira, bertan ageri den azken pertsonaren atzetik. Lan-poltsa hori, hain zuzen, lan-poltsen kudeaketari buruzko araudiarekin bat etorrita erabiliko da.

1.2.5.- Araudi orokor aplikagarriaz gainera, aplikatzekoak izango dira Lan Poltsei buruzko Erabakien edukiak eta xedapenak eta AZP kontratatzeko irizpide eta prozedurei buruz UPV/EHUKO Gerenteak 2002ko uztailearen 1ean sinatutako Zirkularra.

Bigarrena.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak.-

2.1.- Hautapen-prozesuan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da honako baldintza hauek betetzea:

- a. Hamasei urte beteak, eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.
- b. Honako Titulu hauetako batzuk edukitzea edo horiek jasotzeko eskubideak ordainduak izatea: Batxilergoa, Batxilergo Bateratu Balioanizduna, Lanbide Heziketako goi mailako teknikaria edo teknikari espezialista edo titulu baliokidea.
- c. Behar bezala betetako eskaera aurkeztea eta parte hartzeko tasak ordaintzea, deialdiaren hirugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorrita. Tasa bat ordaindu beharko da Erabaki honetan deitutako hautapen-prozesu bakoitzarengatik.

- d. Europar Batasuneko herrialde-kideetako baten naziotasuna edukitzea edo Europar Batasunak gauzatu eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunak aplikatuta langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion Estaturen batekoa izatea. Era berean, Europar Batasuneko herrialde-kideren bateko naziotasunekoaren ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, non ez dauden legez bananduta, eta baita bere eta ezkontidearen oinordekoek ere, baldin eta ezkontideak ez badaude legez bananduta eta oinordekoak 21 urtez beherakoak edo ezkontideen bizkar bizi diren adin horretatik gorakoak badira. Era berean, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko eta Espainiako Estatuan bizi diren atzerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute. Hautatuak izanez gero, kontratuaren xede den jardura gauzatzeko administrazio-baimena badaukatela egiaztatu beharko dute, kontratua bera sinatu aurretik.
- e. Zereginak gauzatzeko funtzio-gaitasuna edukitzea, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 2013/1 Legegintza Errege Dekretua aplikatzeari kalterik eragin gabe. Deituz gero, gaitasun fisikoa eta psikikoa ziurtagiri edo mediku-azterketa bidez egiaztatuko da, eta baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da bitarteko kontratua egiteko. Ezintasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira, baldin eta txertatu nahi duten itzarote-zerrendako lanpostuen berezko funtzioak gauzatzeko behar adina gaitasun badutela egiaztatzen badute.
- f. Zeinahi Herri Administrazioko edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutu-organoetako zerbitzuak diziplina-espediente bidez utzarazi ez izana, eta ebazpen judizial bidez gaitasungabetze absolutu edo berezian ez izatea enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen eskalara iristeko, edo lan-kontratudun langileen kasuan, gaitasungabetu edo utzarazitako lanpostuan gauzatzen zituztenen antzeko funtzioak egikaritzeko. Beste Estatu bateko naziotasuna izanez gero, gaitasungabetua edo antzeko egoeraren batean ez egotea, edo diziplina-zigorrik edo bere Estatuan, baldintza beretan, enplegu publikorako sarbidea galarazten dion antzekorik jaso ez izana.
- g. Ezintasun edo bateraezintasuneko lege-arrazoiren batean murgilduta ez egotea.

2.2.- Hautagaiek aurreko atalean aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitzen denean; salbuespena izango da, ordea, g) letran aurreikusitako bateraezintasun-baldintza. Azken hori aldi baterako lan kontatua egitean bete beharko da, baldin eta hautatzen badute.

Hirugarrena.- Eskariak aurkeztea.-

3.1.- Eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira eskaerak, mota hauetakoren batean:

- a. Bide elektronikoa edo Internet bidez. Inprimakia 3.1.c) oinarrian adierazitako moduan behin beteta dagoela, eskaera bidali beharko da. Bide horretatik aurkezten diren eskaerak hartu izanaren adierazpena eskuratu ahal izango dute, esleitutako erreferentzia-zenbakiarekin eta tasak ordaintzeko agindu-txartelarekin.
- b. Interneteko helbide honetan eskuragarri dagoen eredu bat: www.ehu.es (administrazio eta zerbitzuetako langileak). <http://go.ehu.eus/azp-kanpo-deialdiak>.

3.2.- Onartuak izateko, eta hala badagokio, dagozkion hautapen-probetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte, eta dagozkion tasak ordaindu. Eskarian adierazi beharko dute bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela; betiere, eskariak aurkezteko epea iraungitzen den datari dagokionez, eta bertako bigarren atalean aurreikusitako salbuespenekin.

3.3.- Aurkezteko tokiak:

Bide elektronikoa hautatu ezean, UPV/EHUren zeinahi Erregistro Orokorretan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

UPV/EHUko Erregistro Orokorrak dira, hain zuzen, Leioako Campuseko Unibertsitateko Errektoretzaren eraikinean kokatuta daudenak (Sarriena auzoa, z/g, 48940, Leioa) edo Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren egoitzetan daudenak (Ignazio M^a Barriola eraikina, Elhuyar plaza, 1, 20028, Donostia), Arabako Campuseko Errektoreordetzaren egoitzan daudenak (Izardui Komandantea, 2, 01005, Gasteiz) eta Larrako Etxean daudenak (Agirre Lehendakariaren etorbidea, 83, 48015, Bilbo). Bulego horiek eta UPV/EHUren ikastegiak (horiek ere Erregistro Orokorrak dira) UPV/EHUren 2012ko maiatzaren 16ko Akordioan daude jasota (2012ko ekainaren 18ko EHAA), eta baita Interneteko honako helbide honetan ere:

<http://www.ehu.es/erregistro-bulegoak.html>

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusetan dauden Erregistro Orokorrak astelehenean ostegunera egongo dira irekita, goizez, 09:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 15:00etatik 16:30era. Nola ostiraletan, hala udako etenik gabeko lanaldian edo Aste Santu zein Gabonetan, 09:00etatik 13:00etara egongo dira irekita.

Erregistro Orokorreko bulegoak itxita egongo dira dagokien jaiegunetan, indarrean dagoen urteko "administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldi, ordutegi, oporraldi eta baimenen zirkularrean" xedatutakoarekin bat etorrira.

Erregistro Orokorreko bulego bakoitzak, aipatutako Zirkularraren arabera, ikusteko moduan argitaratuko du zein diren bere jaiegunak eta jendearen arreta soilik goizez eskainiko duten egunak.

Eskariak, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4. artikuluan adierazitako zeinahi modutan aurkeztu ahal izango dira.

Eskaria Correos bulegoetan aurkezten duten interesdunek bosgarren oinarriaren zortzigarren atalean adierazitako Epaimahaiaren helbidera bidali beharko dute, eta bide beretik, posta-zerbitzuen eskaintza arautzen duen Araudia onartzen duen abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikulua xedatutakoa bete beharko dute; esan nahi baita, eskaera irekitako gutun-azalean aurkeztu beharko dute, Correoseko funtzionarioak eskaria zigilatu eta hari data jar diezaion, ziurtatu aurretik. Hala egin ezean, ezingo da jo datan aurkeztutakotzat.

Bide elektronikotik bidalitako eskariak ez dira aurkeztu behar. Alabaina, tasak sistemak ematen duen agindu-txartelik gabe ordainduz gero, ordainagiria aurkeztu beharko da.

3.4.- Eskaerak aurkezteagatiko tasak ordaintzea:

Likidazio honen xede den tasa, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Lege Dekretuari atxikita dago (2007ko abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.), eta **14,66 eurokoa** da.

Deialdi honen 2.1.c) oinarriak aurreikusten duen baldintza betetze aldera, 3.5. oinarrian eskaerak aurkezteko adierazitako epean ordaindu beharko da tasa hori, eta tasa bat ordaindu beharko da honako erabaki honek deitutako hautapen-prozesu bakoitzean parte hartzeagatik.

Eskaera bide elektronikotik egiten bada, sistemak emandako agindu-txartelaren bitartez ordaindu ahal izango da/dira tasa/k. Horretarako, honako erakunde honen zeinahi bulegotan aurkeztu beharko da: Kutxabank, edo bestela, barrakodeen irakurgailuak dituzten aipatutako erakundearen kutxazainetan. Bide elektronikotik egin ahal izango da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordainketa Igarobidearen bitartez, aipatutako erakundearen Banka Elektronikoko bezeroa baldin bazara.

Eskaera eskuz eginez gero, eskaerarekin batera, ordainagiria aurkeztu beharko da. Diru-sarreraren "azalpenean", diru-sarrera egiten duen pertsonaren NANA eta parte hartu nahi den lan-poltsari dagokion hautapen-prozesuaren identifikazioa adierazi beharko dira. Lehenengo atalean aipatutako tasa ordaintzeko kontuzenbakiak, hain justu, eskuz egindako eskabide-orriaren atzeko aldean adierazitakoak dira.

Eskariak aurkezteko epean tasa ordaindu ezean, prozeduratik kanpo geratuko da. Ez da epe gehigarririk emango tasa ordaindu ahal izateko.

Lankideak diren banku-bulegoetan tasa ordaintzeko eskaerak aurkezteak ez du ekarriko, inola ere, aurreko ataletan xedatutakoarekin bat eskaerak aurkezteko izapideak aldatzea, legezko epean eta eran.

3.5.- Eskaerak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, 2016ko otsailaren 22tik martxoaren 2ra, biak barne.

3.6 Ezintasunak dituzten hautagaiek halaxe adierazi beharko dute eskaeran. Horretarako, dagokion laukia bete beharko dute. Bide beretik, hautapen-probak egiteko beharrezkotzat jotako denbora eta bitartekoen litekeeneko egokitzapenak adierazi beharko dira. Aipatutako egokitzapenen premia egiaztatze aldera, eskatzaileak ezintasuna aitortzen dion egiaztatgiri ofiziala eta behar dituen egokitzapenei buruzko txostena aurkeztu beharko ditu. Dokumentazio hori onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik aurkeztu beharko da, Epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzan. Ezintasuna duten pertsonatzat joko dira, hain zuzen, Ezintasuna duten pertsonen aukera berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintza Errege Dekretuaren 4. artikuluan definitutakoak; esan nahi baita, eskumena duen Administrazioako organoak % 33 edo gehiagoko ezintasun maila aitortu dienak.

Eskaerari ez zaio inolako dokumentaziorik erantsi beharko, egokitzapenak eskatu dituzten pertsonen buruzko aurreko atalean xedatutakoari eta tasaren ordainagiriari inolako kalterik eragin gabe.

3.7.- Hautapen-prozesu hauetan parte hartzeak esan nahi du interesdunak onartu egiten duela eskarian jasotako datu pertsonalen tratamendua, behin-behineko eta behin betiko emaitzak web-orrian eta iragarki-taulan argitaratzeari dagokionez, eta ondoriozko lan-poltsaren kudeaketari dagokionez. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo horiei aurka egiteko eskubidea egikaritzeko, deialdia egin duen organora jo beharko da.

Nolanahi ere, eskaria sinatzeak esan nahi du eskatzaileak informazioa jaso duela eta bere datuak aipatutako helburuetarako erabiltzeko baimena ematen duela.

Laugarrena.- Hautagaiak onartzea.-

4.1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, UPV/EHUko Gerentearen Ebazpen bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da UPV/EHUren web-orrian: www.ehu.es, administrazio eta zerbitzuetako langileen atalean.

Baztertutako hautagaiek bost asteguneko epea izango dute (aurreko paragrafoan adierazitako guneetan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita), baztertzerak bultzatu duten akatsa edo arrazoa konpondu ahal izateko.

Interesdunak ez badu konpontzen, aipatutako epean, baztertzerak bultzatu duen akatsa, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita.

4.2.- Behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epea amaitutakoan, beste 15 eguneko epean, hautapen-prozesu honetan onartutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko da. Erabaki horren aurkako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, UPV/EHUko Gerentearen aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dagokion jurisdikzio-ordenaren Epaitegian, bi hilabeteko epean.

4.3.- Prozeduraren zeinahi unetan Epaimahaiak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzetakoren bat, bertatik kanpo geratuko da, aldez aurretik interesdunaren auzialdia eginda, eta egunean bertan jakinarazi beharko zaio administrazio eta zerbitzuetako langileen zerbitzuari.

4.4.- Hautagaien behin-behineko eta behin betiko zerrendetan, hainbat datu jasoko dira: izena, bi abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, edo atzerriko parte-hartzaileentzat, pareko agiriren bat. Eta hori guztia, helburu bakarrerako: fase bakoitzean prozesuaren publizitate-printzipioa betetzeko, eta hala badagokio, interesdunei jakinarazpena helarazteko. Guzti-guztia, datu pertsonalen babeserako indarrean dagoen legedian xedatutakoarekin bat etorrira.

Bosgarrena.- Epaimahai Kalifikatzailea.-

5.1.- Bost kidek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea: lehendakariak eta UPV/EHUko Administrazioak izendatutako lau kidek; horietako bat, hain zuzen, Idazkari izendatuko dute.

Euskara-ezagutza erabakitzeko aurreikusitako probetarako HAEEko ordezkari bat izendatuko dute.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera jakinaraziko da deialdi hau arautuko duen Epaimahai Kalifikatzailea nork osatuko duen.

5.2.- Kasu guztietan, Epaimahaiak aholkularien lankidetzat jaso ahal izango du, deialdi honetan aurreikusitako hautapen-prozesuko probaren baterako edo guztietarako. Aholkulariak euren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

5.3.- Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen gehiengo botoekin hartuko dira; berdinketa izanez gero, berriz, Lehendakariaren botoa izango da bozketa ebatziko duena.

5.4.- Epaimahaiak, bestalde, bi ordezkari izango ditu. Horiek ere titularrak izendatzearekin batera izendatu beharko dira. Lehendakariaren kasuan izan ezik, ordezkariak titularrak kalitate berbera eduki beharko dute.

5.5.- Epaimahaia ezingo da osatu, ezta jardunean aritu ere, Lehendakaria eta Idazkaria, edo hala badagokio, haien ordezkariak, eta gutxienez kideen erdiak (titularrak zein ordezkariak) bildu ezean.

5.6.- Lehendakariak eta haren ordezkokoak huts eginez gero, gaixotuz gero edo lege-arrazoiren bategatik ez azalduz gero, epaimahaikideen artean maila, antzinasun eta adin handieneko kideek ordezkotuko dituzte, hurrenkera horretan.

Idazkariaren kasuan, hark eta haren ordezkokoak huts eginez gero, gaixotuz gero edo lege-arrazoiren bategatik ez azalduz gero, beste zeinahi epaimahaikideek egingo ditu ordezko-lanak, gehienen adostasunarekin aukeratuta.

5.7.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako egoera batzuk batera gertatzen badira, epaimahaikideek esku hartzeari utziko diote, eta UPV/EHUko Gerenteari emango diote horren berri.

Era berean, arestian aipatutako arrazoiak batera gertatuz gero, interesdunek epaimahaikideak ezetsi ahal izango dituzte, aipatutako lege-testuaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

5.8.- Epaimahai Kalifikatzaileak Bizkaiko Campusean izango du helbidea, jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako: Langileen Gerentziaordetza, AZP Zerbitzua, Hautapen eta Hornidura Atala (Sarriena auzoa, z/g, 48940, Leioa).

Seigarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena.-

6.- Hautapen-prozesuak fase hauek izango ditu:

6.1.- Oposizioa

Oposizio-fasean ariketa hauek gauzatu beharko dira:

6.1.1.- Lehen ariketa: hautagai guztiek nahitaez egin beharrekoa; baztertzailea izango da.

Ariketa teoriko bat egin beharko da, hau da, idatziz erantzun beharko zaio 50 galdera baino gehiago ez dituen eta hiru hautazko erantzun dituen galdeketa bati (haietatik bakarria izango da zuzena). Galdeketa II. Eranskinean agertzen den gaiei buruzkoa izango da.

Lehenengo zati honek zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa izango du. Gainditzeko, ezinbestekoa izango da sei (6) puntu lortzea; alegia, 30 galderari zuzen erantzutea.

Lehenengo zati honetan gehieneko puntuazioa lortu ahal izateko, gainditu duten hautagaiek lortutako zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, banaketa proportzional baten bitartez; era honetan, hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat etorriko da berrogeita hamar (50) puntuko puntuazio zuzenarekin. Eragiketa horiek guztiak, nolana ere, hautagaiak nor diren jakin gabe egingo dira. Zuzeneko puntuazioak kalkulatzeko, 1 puntu emango zaio erantzun zuzen bakoitzari.

6.1.2.- Bigarren ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat.

Proba praktikoa: Oinarrietan Eranskin gisa agertzen diren gaiei gaineko instalazio-eta mantentze-lan bat izango da. Egin beharreko lana eta iraupena proba hau egingo duten pertsona kopuruaren arabera izango da; hala ere, proba egiteko gehienezko denbora ordubetekoa izango da.

Lehen ariketa gainditu dezaketen hautagaien kopurua kontuan hartuz, Epaimahaiak erabaki ahal izango du bigarren probaren ordezkaria den proba idatzi bat egitea, hau da, idatziz erantzutea Epaimahaiak ezartzen duen/dituen kasu praktikoari/praktikoei, betiere lanpostuari dagozkion funtzioak eta deialdi honetako Eranskinean agertzen diren gaiei buruzkoa/buruzkoak.

Epaimahaiak, gehienez, 10 puntuko kalifikazioa emango dio proba honi. Gainditzeko, ezinbestekoa izango da bost (5) puntu lortzea.

6.1.3.- Oposizioko ariketa gainditu ahal izateko, beharrezkoa izango da gutxienez hamaika (11) puntuko puntuazioa izatea, orotara, eta baita, jakina, zati bakoitzerako adierazi ditugun gutxienezko puntuazioak lortzea ere.

6.1.4.- Epaimahaiari dagokio probak egiteko datak, orduak eta tokiak erabaki eta horren berri ematea, laugarren oinarriaren lehenengo atalean aipatutako iragarki-taularen eta web-orriaren bitartez. Epaimahaiak ere erabaki dezake deialdi berean bi ariketak egitea, nahiz eta ariketa praktikoa soilik ariketa teorikoa gainditu duen/duten hautagaiari/hautagaiei kalifikatuko zaizkien.

6.1.5.- Epaimahaiak deituko du/ditu hautagaia/hautagaiak. Azaltzen ez direnak kanpoan geratuko dira, non eta ez den behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasurik gertatzen; betiere, Epaimahaiak modu askean aintzat hartutakoak. Proba egiteko deialdia laugarren oinarriko lehenengo atalean aurreikusitako web-orrian argitaratu beharko da.

6.1.6.- Hautagaiek, proba doazenean, euren nortasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte (NANA, pasaporte edo gidabaimena), proba egin bitartean zeinahi epaimahaikidek eskatu ahal izango baitizkie.

6.1.7.- Proba euskaraz egin nahi duten hautagaiek halaxe adierazi beharko dute, espresuki, eskabide-orrian. Antolamendu-kontuak direla tarteko, hautagaiek kontrakoa eskatu ezean, probak gaztelania hutsean egingo dira.

6.1.8.- Oposizio-faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ostean, bost asteguneko epea jarriko da, beharrezko erreklamazioak egiteko.

6.2.- Merezimenduen Lehiaketa

6.2.1.- Oposizio-faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost asteguneko epea ezarriko da Merezimenduen Lehiaketa-fasean zenbatzekoak diren merezimenduak adierazteko, eta hala badagokio, egiaztatzeko. Eskariak

aurkezteko azken egunera arte ziurtatutako merezimenduak soilik kontutan hartuko dira.

6.2.2.- Fase honetako kalifikazioa, hain zuzen, merezimenduen jarraiko baremo honen arabera emandako puntuen batura izango da. Gehienez lortu daitezkeen puntuak, berriz, sei (6) izango dira.

- a) Lan-esperientzia egiaztatua mekanizatuko teknikari gisa eta makina-erreminten erabileran: **4,5 puntu** gehienez, 0,5 puntu lan egindako urte bakoitzeko.
- b) Fabrikazio-teknologietako espezializazio-ikastaroak: **0,75 puntu** gehienez.
- c) Koordenada bidez neurtzeko makinaren eta laborategiko beste tresnerien erabilera: **0,3 puntu**.
- d) CAM software ezagutzak: **0,75 puntu** gehienez.
- e) Lantokiko segurtasun eta higienerari buruzko ikastaroak: **0,3 puntu** gehienez.
- f) Fabrikazio-ingeniaritzarekin lotutako beste prestakuntza- edo ikerketa-gai batzuk: **0,75 puntu** gehienez.

Merezimendu hauek guztiak ziurtagirien bidez akreditatuko dira, eta Epaimahaiak baloratuko ditu.

- g) Titulu hauek izatea edo horiek eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea: **3 puntu**.
 - Goi-mailako prestakuntza-zikloa edo bigarren mailako Lanbide Heziketa makina-erreminten muntaketa eta mekanizatuaren arloan.
 - Fabrikazio Mekanikoko Ekoizpen Programazioko goi-mailako teknikaria edo Mekanizatu bidezko Ekoizpeneko goi-mailako teknikaria.
 - Fabrikazio Mekanikoko Diseinu arloko goi-mailako teknikaria edo Proiektu Mekanikoen Garapenerako goi-mailako teknikaria.
- h) Mekanizatuko teknikari titulua izatea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea: **1,5 puntu**.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzei dagokienez. Gehienez ere 0,2 puntu emango zaie, honako baremo honen arabera:

- Frantseseko, ingeleseko edo alemaneko Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo B2 (Hizkuntzen Europako Esparrua): 0,10 puntu, hizkuntza bakoitzeko. Hezkuntza jakite maila baloratzeko ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzko UPV/EHUko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko erabakia kontutan hartuko da. Tituluak, betiere, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik lortutakoak izan beharko dira.

6.2.4.- Lehiaketa-faseak ez du kanporatze-izaerarik izango, eta bertan lortutako puntuazioak ez dira aintzat hartuko oposizio-faseko probak gainditu ahal izateko.

6.2.5.- Merezimenduen lehiaketa-faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ostean, bost asteguneko epea jarriko da, beharrezko erreklamazioak egiteko.

6.3.- Euskara.- Euskara merezimendutzat joko da, EAEko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorrita.

Hauxe da lortu daitekeen puntuazioa:

2. HE (B2) edo gorakoa: 2,6 puntu

1. HE (B1): 1,3 puntu

Hizkuntza-eskakizun bakoitza egiaztatzeko, eskakizun bakoitzerako proba bat prestatuko da. Hautapen-prozesu bakoitzeko oposizio-faseko behin betiko emaitzak argitaratu ondoren egingo da.

Euskara-probaren bitartez aurretik zehaztutako hizkuntza-eskakizunak soilik egiaztatu ahal izango dira. Behar bezala antolatu ahal izateko, dagokion hautapen-prozesuko oposizio-faseko lehenengo ariketako lehen zatian, hautagaiei eskatuko zaie adierazteko ea proba euskaraz egin nahi duten, eskabide-orrian besterik adierazi bazuten ere. Nolanahi ere, oposizio-fasea gainditu ez duten hautagaiek ez dute proba hau egin beharko.

HAEEK, bere antolamendu- eta funtzionamendu-arauekin bat etorrita, hizkuntza-eskakizun bakoitza egiaztatzeko probetarako datak finkatuko ditu.

Hizkuntza-eskakizunak baliozkotzeari dagokionez, EAEko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoari eta euskararen ezagutza egiaztatzeko tituluak eta egiaztagiria baliozkotzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan xedatutakoari erreparatu beharko zaio.

Hizkuntza-eskakizunak edo parekoak egiaztatzeko dokumentuak euskarazko ariketa idatzia egingo den egunera arte (egun hori barne) aurkeztu ahal izango dira.

6.4.- Epaimahai Kalifikatzaileak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu beharko ditu egokitzapenak behar dituzten hautagai ezinduentzat; betiere, 3.6. oinarriaren arabera eskariarekin batera eskatutakoak badira. Era horretan, gainerako hautagaiekiko aukera-berdintasuna izango dute. Nolanahi ere, ezingo da probaren edukia indargabetu, ezingo zaio kalterik eragin aldi baterako langileen deialdiak oinarrian behar duen presakotasun eta bizkortasunari, eta ezingo da murriztu edo urritu eskatutako gaitasun maila.

6.5.- Hautagaien sailkapen-hurrenkera, hain zuzen, oposizio-fasean, merezimenduen lehiaketan, eta hala badagokio, euskararenean eskuratutako

puntuazioen baturak ezarriko du. Berdinketa izanez gero, honako irizpide hauen arabera finkatuko da hurrenkera:

1. Oposizio-fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
2. Bigarren ariketan (praktikoan) puntuazio handiena lortu duenaren alde.
3. Lehengo ariketan (teorikoan) puntuazio handiena lortu duenaren alde.
4. Lehiaketa fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde. gehien eman izana egiaztatzen duenaren alde.
5. Lanbide esperientzia atalean puntuazio handiena lortu duenaren alde.

Irizpide horiek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, eskaria iritsi eta erregistratu zeneko datari erreparatuko zaio.

6.6.- Hautagaiei eragiten dieten eta prozesuarekin lotutako ekintza guztien berri iragarriko da laugarren oinarriaren lehenengo atalean aurreikusitako web-orrian. Argitalpen horiek egingo dira interesdunei jakinarazpen pertsonala bidali beharrean, eta ondorio berberak izango dituzte, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira.

Zazpigarrena.- Epaimahaiaren proposamena.-

Hautapen-prozesu guztiak amaitu ostean, horiek guztiak gainditutako hautagaiak antolatuko ditu epaimahaiak, bakoitzean lortutako guztizko puntuazioaren arabera, atal bakoitzari dagokiona adierazita. Ondoren, UPV/EHUko Gerentziara bideratuko du, han prozesuak behin betiko ebazteko.

Epaimahaiaren proposamenen aurka gorako errekurtsua jarri ahal izango da UPV/EHUko Gerentziaren aurrean, horiek argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hilabeteko epean.

Lan-poltsan, honako hauek adierazi beharko dira:

- Kide guztien izen-abizenak.
- Kide bakoitzaren hurrenkera-zenbakia.
- Deialdi honetan parte hartzen duten kideei baremoa aplikatu, eta horiek lortzen duten puntuazioa.
- HAAEEK egiaztatu eta homologatutako hizkuntza-eskakizuna eta ingeles-, frantses- edo aleman-ezagutza, egiaztatuta.

Zortzigarrena.- Gorabeherak.-

8.1.- Epaimahaiak eskumena izango du aurkeztutako zalantzak argitzeko eta honako oinarri hauetan aurreikusitako guztian, hautapen-prozesua bide onetik joan dadin beharrezkoak diren erabaki guztiak hartzeko.

8.2.- Deialdiari, oinarriari eta horietatik zein epaimahaiaren jardunetik eratorritako zeinahi administrazio-ekintzari aurka egin ahal izango zaio, Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legean aurreikusitako kasuetan eta moduan.

8.3.- Deialdi honekin lotutako informazioa UPV/EHUko AZP Zerbitzuko Hautapen eta Hornidura Atalean emango da (Errektoretzaren Eraikina, beheko solairua, Leioako Campusa, Bizkaia).

Bederatzigarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.-

9.1.- Dagokion deialdiaren harira, bigarren oinarrian hautapen-prozesurako eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko ditu aukeratutako hautagaiak, finkatutako epean.

9.2.- Aipatutako epean, eta ezinbesteko arrazoiak gertatuz gero salbu, hautagaiak ez badu dokumentazio hori aurkezten edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintza guztiak biltzen dituela, hautatuen zerrendatik kanpo geratuko da, automatikoki.